



DONOSTIA SAN SEBASTIÁN

Donostiako Udala - 2020ko Aurrekontuak

4. alea - Udaleko Elkarteak

Aurkibidea

1. Donostiako Sustapena, S.A.	6
2. Balneario de la Perla del Océano Sozietatea, S.L.	11
3. Donostiako Etxegintza Enpresa Erakunde Publikoa	13
3.1. Erakundearen 2020ko aurrekontuen baitan sartzen diren dokumentuak	13
3.2. 2020-2023 lau urtekoan Erakundeak egingo dituen inbertsioak eta beraien finantzaketa.	13
3.3. 2020ko jarduera arruntei dagozkien diru sarrera eta gastuak.	14
3.3.1. Negozio zifraren zenbateko garbia	15
3.3.2. Pertsonen gastuak	16
3.3.3. Beste ustiapen gastu batzuk.	17
3.3.4. Higiezinaren amortizazioa.	17
3.3.5. Ibilgetu ez finantzarioaren diru laguntzen eta beste batzuen egozpena.	18
3.3.6. Besterentzeen eta beste eragiketa batzuen ondoriozko emaitza.	18
3.3.7. Diru sarrera finantzarioak.	18
3.3.8. Gastu finantzarioak.	19
3.4. Donostiako Udalaren diru laguntzak.	19
4. Polloe, Donostiako Hileta Zerbitzuak S.A.	23
4.1. Diru-Sarrerak	23
4.2. Gastuak	23
4.3. Inbertsioak	24

5. Donostia Kultura Enpresa Erakunde Publikoa	27
5.1. Sarrera	27
5.2. 2020. DK-k 30 urte	27
5.3. Kontu nagusiak	29
5.4. Inbertsioak	31
6. Anoeta Kiroldetgia, S.A.	35
6.1. Sarrerak	35
6.2. Gastuak	36
6.3. Inbertsioak	36
7. Donostiako Tranbia Konpainia, S.A.	39
7.1. Zerbitzua, kalitatea eta bezeroaren arreta hobetzea.	39
7.2. Ingurumena: autobus ekologikoak eta irisgarriak	39
7.3. Tarifa sistema	39
7.4. Langileria eta antolaketa.	40
7.5. Berrikuntza	42
7.6. Komunikazio eta Marketing ekintzak	43
8. Donostia Turismo, S.A.	47
8.1. Xedea	47
8.2. Ikuskera	47
8.3. Erronka estrategikoak	47
8.3.1. Helmugaren kudeaketa turistikoa	48
8.3.2. Marka / Helmugako marketina / Produktu turistikoa	48
8.3.3. Gobernantza / Antolakuntza	49

Taulen aurkibidea

1. taula: Donostiako Sustapenaren programa osagaiak	8
2. taula: Donostiako Sustapenaren diru-sarrerren ekonomi balioztapena	9
3. taula: Donostiako Sustapenaren gastuen ekonomi balioztapena	9
4. taula: Donostiako Sustapena. Orokorra. Diru-sarrerren azalpena	9
5. taula: Donostiako Sustapena. Orokorra. Gastuen azalpena	10
6. taula: Balneario de la Perla del Océano Sozietatearen programa osagaiak	11
7. taula: Balneario de la Perla del Océano Sozietatearen diru-sarrerren ekonomi balioztapena	11
8. taula: Balneario de la Perla del Océano Sozietatearen gastuen ekonomi balioztapena	11
9. taula: Balneario de la Perla del Océano Sozietatea. Orokorra. Diru-sarrerren azalpena	12
10. taula: Balneario de la Perla del Océano Sozietatea. Orokorra. Gastuen azalpena	12
11. taula: Donostiako Etxegintza Enpresa Erakunde Publikoaren programa osagaiak	20
12. taula: Donostiako Etxegintza Enpresa Erakunde Publikoaren diru-sarrerren ekonomi balioztapena	20
13. taula: Donostiako Etxegintza Enpresa Erakunde Publikoaren gastuen ekonomi balioztapena	20
14. taula: Donostiako Etxegintza Enpresa Erakunde Publikoaren. Orokorra. Diru-sarrerren azalpena	21
15. taula: Donostiako Etxegintza Enpresa Erakunde Publikoaren. Orokorra. Gastuen azalpena	22
16. taula: Polloe, Donostiako Hileta Zerbitzuak S.A.ren programa osagaiak	24
17. taula: Polloe, Donostiako Hileta Zerbitzuak S.A.ren diru-sarrerren ekonomi balioztapena	25
18. taula: Polloe, Donostiako Hileta Zerbitzuak S.A.ren gastuen ekonomi balioztapena	25
19. taula: Polloe, Donostiako Hileta Zerbitzuak S.A. Orokorra. Diru-sarrerren azalpena	25
20. taula: Polloe, Donostiako Hileta Zerbitzuak S.A. Orokorra. Gastuen azalpena	26
21. taula: Donostia Kultura Enpresa Erakunde Publikoaren programa osagaiak	32

22. taula: Donostia Kultura Enpresa Erakunde Publikoaren diru-sarrerren ekonomi balioztapena	32
23. taula: Donostia Kultura Enpresa Erakunde Publikoaren gastuen ekonomi balioztapena	32
24. taula: Donostia Kultura Enpresa Erakunde Publikoa. Orokorra. Diru-sarrerren azalpena	33
25. taula: Donostia Kultura Enpresa Erakunde Publikoa. Orokorra. Gastuen azalpena	33
26. taula: Anoeta Kiroldedia, S.A.ren programa osagaiak	36
27. taula: Anoeta Kiroldedia, S.A.ren diru-sarrerren ekonomi balioztapena	37
28. taula: Anoeta Kiroldedia, S.A.ren gastuen ekonomi balioztapena	37
29. taula: Anoeta Kiroldedia, S.A. Orokorra. Diru-sarrerren azalpena	37
30. taula: Anoeta Kiroldedia, S.A. Orokorra. Gastuen azalpena	38
31. taula: Donostiako Tranbia Konpainia, S.A.ren programa osagaiak	44
32. taula: Donostiako Tranbia Konpainia, S.A.ren diru-sarrerren ekonomi balioztapena	44
33. taula: Donostiako Tranbia Konpainia, S.A.ren gastuen ekonomi balioztapena	44
34. taula: Donostiako Tranbia Konpainia, S.A. Orokorra. Diru-sarrerren azalpena	45
35. taula: Donostiako Tranbia Konpainia, S.A. Orokorra. Gastuen azalpena	45
36. taula: Donostia Turismo, S.A.ren programa osagaiak	49
37. taula: Donostia Turismo, S.A.ren diru-sarrerren ekonomi balioztapena	50
38. taula: Donostia Turismo, S.A.ren gastuen ekonomi balioztapena	50
39. taula: Donostia Turismo, S.A. Orokorra. Diru-sarrerren azalpena	50
40. taula: Donostia Turismo, S.A. Orokorra. Gastuen azalpena	51

1. Donostiako Sustapena, S.A.

Donostiako ekonomiaren bilakaerari eta aurreikuspenari begiratuta, ziklo aldaketa bat eta ziurtasunik gabeko jokalekua igartzen da 2020. urterako, bai bertako BPGari dagokionez, bai langabezia murrizteari dagokionez. Dena dela, aurreko krisialdia hartzen badugu erreferentziatzat, baiezta dezakegu Donostiako ekonomiaren gaineko eragina neurritzkoa izan zela. Ziurtasunik gabeko jokaleku hori dela eta, ezinbestekoa da Donostia Sustapenak ahalegin handiagoak egitea berrikuntza sustatzeko eta talentua erakartzeko, lehiakortasun mailak handitu daitezen, eta sektore ekonomiko jakin batzuen espezializazioan sakontzeko eta proiektuak handitzeko, herritarren bizi kalitatea hobetuko duen hiri adimendunaren eredura hurbildu gaitezen. Era berean, mugikortasun jasangarrian, 5G komunikazio berrietan eta energian oinarrituta hiriak zer aukera ekonomiko berri izan ditzakeen aztertuta, hurrengo ekitaldirako ekintza plana osatu eta aurrekontuetan islatuko da.

Gure jardunari dagokionez, 2020. urtean jarraipena emango zaie aurreko urteetako politika eta programa jakin batzuei, 2019. urtean zehaztutako ekimen berrietan sakonduko dugu, Sustapeneko sozietate bideratzaile honetan eta hiriko sustapen ekonomikoaren edo garapen jasangarriaren sorta zabalaren barruan proiektu berriak nabarmenduko direlakoan. Gainera, etengabe eta xeheki aztertuko da ekonomiaren bilakaera, krisi adierazlerik sumatzen bada aurretiaz neurri zuzentzaileak hartu ahal izan daitezen.

Horrela, Ekonomia Sustapeneko Plana edo Donostia UP baliabide eta lankidetzaren hitzarmenak biltzeaz arduratuko da. Horrek, berrikuntza oinarri hartuta, balio erantsi handiko enpresa berritzaileen sareari eta hiriko berrikuntza ekosistemari berari laguntzeko politikak sustatzen ditu, eta baita hiriko sektore estrategikoei ere, besteak beste, azaleratzen ari diren sektoreekin lotutako bertako klusterrak (Smart, surf, nekazaritzarako elikadura sektorea eta moda) eta bai ostalaritza eta merkataritzako sektoreak. Hori guztia, bere gizarte bokazioa alde batera utzi gabe, alegia; lan mundutik urrun dauden pertsonak kontratatzearen alde egitea, adina, genero edo egoera sozioekonomikoarengatik diskriminatu egin direlako.

Europako Gizarte Funtsak eta bertatik eratorritako eta batera finantzatutako programek jarraituko dute gaitasun gabeko gazteengana eta iraupen luzeko langabetuen bezalako kolektiboetara estaldura zabaltzen.

Inbertsioen alorrean, eta Antso Jakituna SmartKale bihurtzeko birgaitze lanetan sortu diren arazoak ikusita, auzotarrekin akordioa egin ondoren 2020an lan horiek gauzatzen jarraitzea proposatu dugu, eta arian-arian gailu eta mekanismo teknologikoak txertatzea, apurka-apurka eremu horretan bai saltokiei bai auzotarrei digitalizatzen laguntzeko.

Europako programak burutzeko klusterrek eta bereziki Replicate programak 2020an erronka desberdinei helduko diete bai Txomin auzo berrian neurri desberdinak gauzatzeari dagokionez, sarea koordinatzea, eta bai aipatutako sektoreak sustatzeari eta Europako finantzazio berria bilatzeari dagokionez.

Bestalde, 2020an elkarteak sustatutako enpresa zentoren jarduera mantenduko da. Horien artean bertako klusterrekin lotutakoa hartzen dira barne, besteak beste, Ikus-entzunezko Berrikuntza Poloa eta Enertic, Talent House, eta ikerketa eta berrikuntza hiriko sare ekonomikoari gerturatzearena alde egiten duten esfortzua sakonduko da, aukera berriak sustatzeko.

Berrikuntza eta talentu programak finkatu dira, bai ikerketa zentroekin garatutako harremanari eta hitzartutako hitzarmen desberdinei dagokienez, eta bai Donostiako ekosisteman sortu daitezkeen enpresa berrien eredia identifikatuz doazen startups teknologiko desberdinei laguntzeari dagokionez. Conecting Talent-ek helburu hauekin bat egin du, mundu mailan talentua itzultzeko eta erakartzeko tokiko politikaren tresna nagusi gisa.

Zalantzarik gabe, Txomin auzoa eta iaz abian jarriko zen District Heating ekimena izango dira auzo-laboretegi gisako aukeren gune bat. Finkatutako etxebizitza birgaitzeko obren amaiera eta energia eraginkortasunarekin eta energia berriztagarriekin lotutako ekipamendu desberdinen hedapena izan dira erronka nagusia. Txomin proben banku bilakatu da, biztanle berriekin konektatuz eta elkarrekin jardunez eta baita sor daitezkeen zerbitzuen eskaera ere. Horrela, 5G, argiztapen adimendua edo kargadore elektrikoen ildo osoa hurrengo ekitaldian garatu ahal izango dira hurrengo ekitaldian, biztanle berriei etxebizitzak entregatzeko jarduerarekin bat eginez.

Sustapen sozietate honen eta District Heating bezalako sektore pribatuaren artean partekatutako negozio ereduaren analisiak garapen berrietarako ateak zabaltzen dizkigu,

mugikortasun jasangarriko zerbitzuetan eta bereziki haien bideragarritasun ekonomikoan murgilduz.

Talent House II baten analisiak eta hura erabilgarri izatearen aukerak, lehenengoaren arrakastaren ondoren, hirian sor litekeen aukeraren bat bideratzera eramaten gaitu, bai partzelak eskuragarri izatea, ondoren eraikitzea edo bai zeregin hau bete dezakeen eraikinaren bat alokatzeko aukerari dagokionez.

Azkenik, ezin dugu baztertu gizartearen aktibo guztien kudeaketa, bai higieziinei dagokienez eta bai errepikatzen diren diru-sarrerak sortzen dituzten proiektuei dagokienez, udalerrriak garatzen dituen ekonomia sustatzeko politiken jasangarritasun ekonomikoaren alde egiten dutela.

Horretarako, 2020ko aurrekontuan 14.170.000 eurotik gorako baliabideak sartu dira. Udalaren ekarpena 6.503.181 eurokoa izango da.

1. taula: Donostiako Sustapenaren programa osagaiak

Programa osagaiak	Zenbatekoa	%
Donostiako Sustapena	14.173.159	100,00
Guztira	14.173.159	100,00

2. taula: Donostiako Sustapenaren diru-sarreraren ekonomi balioztapena

Kapitulua	Deskribapena	Zenbatekoa	%
1	Zuzeneko zergak	0,00	0,00
2	Zeharkako zergak	0,00	0,00
3	Tasak eta bestelako zergak	1.622.380,00	11,45
4	Transferentzia arruntak	9.131.110,00	64,43
5	Ondare-sarrerak	3.418.669,00	24,12
6	Inbertsio errealeen besterenganaketa	0,00	0,00
7	Kapital-transferentziak	1.000,00	0,01
8	Finantza-aktiboak	0,00	0,00
9	Finantza-pasiboak	0,00	0,00
Guztira		14.173.159,00	100,00

3. taula: Donostiako Sustapenaren gastuen ekonomi balioztapena

Kapitulua	Deskribapena	Zenbatekoa	%
1	Pertsonal-gastuak	3.145.135,00	22,19
2	Gastuak ondasun arruntetan eta zerbitzuetan	6.660.404,00	46,99
3	Finantza-gastuak	0,00	0,00
4	Transferentzia arruntak	4.366.620,00	30,81
6	Inbertsio errealak	1.000,00	0,01
7	Kapital-transferentziak	0,00	0,00
8	Finantza-aktiboak	0,00	0,00
9	Finantza-pasiboak	0,00	0,00
Guztira		14.173.159,00	100,00

4. taula: Donostiako Sustapena. Orokorra. Diru-sarreraren azalpena

Diru-sarreraren azalpena	Zenbatekoa
3. kapitulua	
Zerbitzuak ematea	1.113.030,00
Bezeroei eragindako gastuen sarrerak	509.350,00
3. kapituluaren guztizkoa	1.622.380,00
4. kapitulua	
Donostiako Udalak emandako diru-ekarpena (gastu arrunta)	6.503.181,00
Estatuko ekarpena	8.000,00
Eusko Jaurlaritzaren diru-ekarpena	1.109.000,00
Foru Aldundiaren diru-ekarpena	113.933,00
Europa Batasunaren diru-ekarpena	1.394.496,00
Bestelako diru-laguntzak	2.500,00
4. kapituluaren guztizkoa	9.131.110,00
5. kapitulua	
Alokairugatik sarrerak	2.108.669,00
Hotelen kanona	1.310.000,00
5. kapituluaren guztizkoa	3.418.669,00

4. taula: Donostiako Sustapena. Orokorra. Diru-sarreraren azalpena

Diru-sarreraren azalpena	Zenbatekoa
7. kapitulu	
Donostiako Udalak emandako diru-ekarpina (kapital gastua)	1.000,00
7. kapituluaren guztizkoa	1.000,00
Guztira	14.173.159,00

5. taula: Donostiako Sustapena. Orokorra. Gastuen azalpena

Gastuen azalpena	Zenbatekoa
1. kapitulua	
Langileen ordainsariak	2.365.938,00
Gizarte-aseguruak	715.281,00
Elkarkidetza	39.799,00
Langileen prestakuntza	16.250,00
Beste hainbat gizarte-laguntzak	7.867,00
1. kapituluaren guztizkoa	3.145.135,00
2. kapitulua	
Profesional kontratazioa eta ohiko zerbitzuak	2.154.420,00
Ez-ohiko azterketa teknikoak	999.881,00
Gainontzekoentzat kurtsoak	73.590,00
Alokairuak, mantenimendua eta hornidurak	2.093.670,00
Aseguruak	28.143,00
Argitalpenak, komunikazioa eta ordezkariak	37.630,00
Komunikazioak	23.841,00
Bidaiak, ostatu gastuak eta dietak	100.562,00
Beste gastuak	945.405,00
Lanaldietan eta beste gertakizunetan antolakuntza eta parte hartzea	29.454,00
Beste hainbat gastu txiki	5.208,00
Banku zerbitzuak	168.600,00
Tributuak	6.660.404,00
2. kapituluaren guztizkoa	6.643.296,00
4. kapitulua	
Sariak, diru-laguntzak eta bekak	4.366.620,00
4. kapituluaren guztizkoa	4.366.620,00
6. kapitulua	
Interesak	1.000,00
6. kapituluaren guztizkoa	1.000,00
Guztira	14.173.159,00

2. Balneario de la Perla del Océano Sozietatea, S.L.

2020an Sozietateak aurreko urtetako ekintzekin jarraituko du, bere aurrekontua mantenduz. Sarrerren aldetik, bakarrik bere ondarearen alokairuak kudeatuz hornitzen da eta gastuetan aldiz, ondarearen mantenua, administrazio eta finantza gastuak ditu.

6. taula: Balneario de la Perla del Océano Sozietatearen programa osagaiak

Programa osagaiak	Zenbatekoa	%
Balneario de la Perla del Océano Sozietatea	508.276,00	100,00
Guztira	508.276,00	100,00

7. taula: Balneario de la Perla del Océano Sozietatearen diru-sarrerren ekonomi balioztapena

Kapitulua	Deskribapena	Zenbatekoa	%
1	Zuzeneko zergak	0,00	0,00
2	Zeharkako zergak	0,00	0,00
3	Tasak eta bestelako zergak	0,00	0,00
4	Transferentzia arruntak	0,00	0,00
5	Ondare-sarrerak	595.422,00	0,00
6	Inbertsio errealen besterenganaketa	0,00	0,00
7	Kapital-transferentziak	0,00	0,00
8	Finantza-aktiboak	0,00	0,00
9	Finantza-pasiboak	0,00	0,00
Guztira		595.422,00	0,00

8. taula: Balneario de la Perla del Océano Sozietatearen gastuen ekonomi balioztapena

Kapitulua	Deskribapena	Zenbatekoa	%
1	Pertsonal-gastuak	0,00	0,00
2	Gastuak ondasun arruntetan eta zerbitzuetan	496.256,00	97,64
3	Finantza-gastuak	0,00	0,00
4	Transferentzia arruntak	0,00	0,00
6	Inbertsio errealak	0,00	0,00
7	Kapital-transferentziak	0,00	0,00
8	Finantza-aktiboak	0,00	0,00
9	Finantza-pasiboak	12.020,00	2,36
Guztira		508.276,00	100,00

9. taula: Balneario de la Perla del Océano Sozietatea. Orokorra. Diru-sarreraren azalpena

Diru-sarreraren azalpena	Zenbatekoa
5. kapitulua	
Alokairugatik sarrerak	595.422,00
5. kapituluaren guztizkoa	595.422,00
Guztira	595.422,00

10. taula: Balneario de la Perla del Océano Sozietatea. Orokorra. Gastuen azalpena

Gastuen azalpena	Zenbatekoa
2. kapitulua	
Kanpoko zerbitzuak	293.395,00
Zergak	202.861,00
2. kapituluaren guztizkoa	496.256,00
8. kapitulua	
Defizit edo superabitaren ondorioz aurrekontua orekatzeko eragiketak	87.146,00
8. kapituluaren guztizkoa	87.146,00
9. kapitulua	
Epe luzerako maileguen itzulpena	12.020,00
9. kapituluaren guztizkoa	12.020,00
Guztira	595.422,00

3. Donostiako Etxegintza Enpresa Erakunde Publikoa

3.1. Erakundearen 2020ko aurrekontuen baitan sartzen diren dokumentuak

Entidad Pública Empresarial de Vivienda – Donostiako Etxegintzak (aurrerantzean, “Erakundea”) 2020rako prestatu duen aurrekontuak honako dokumentu hauek hartzen ditu bere baitan:

- a) Galera eta irabazien aurreikuspen kontua.
- b) Aurreikuspen balantzea.
- c) Ondare Garbiaren Aldaketen aurreikuspen Egoera.
- d) Memoria, jarduera arrunten finantzaketaren defizita erakusten duen egoerarekin.
- e) Egungo eta kapitaleko transferentziak eta dirulaguntzen gaineko eranskina.
- f) Zorpetzearen gaineko eranskina.
- g) Langileen gaineko eranskina.
- h) 2020-2023 lau urtekoan egingo diren inbertsioen eta haien finantzaketaren gaineko eranskina.

3.2. 2020-2023 lau urtekoan Erakundeak egingo dituen inbertsioak eta beraien finantzaketa.

2020rako aurrekontuan 2020-2023 lau urtekoarako Jarduera, Inbertsio eta Finantzaketen Plan bat sartzen da, non denbora tarte horretan aurreikusten diren ekintza berrietarako inbertsioak eta inbertsio bakoitzari dagokion finantzaketa jasotzen diren.

Printzipioz, ez da espero aldaketarik Eusko Jaurlaritzaren laguntza finantzarioen gaineko legeetan, eta, beraz, jasoko diren diru laguntzen zenbatekoetan ere ez.

Inbertsioak direla-eta Administrazio Kontseiluak onartu beharreko ordainketa eta konpromisoen urtez urteko zenbatekoak hauek dira:

- » 2020: 8.776.000,72 €
- » 2021: 11.220.000,00 €
- » 2022: 15.710.000,00 €

- » 2023: 4.740.000,00 €
- » GUZTIRA: 40.446.000,72 €

Erakundeak jarraitu duen finantzaketa politikari eutsita, beharrezkoa izango litzateke Donostiako Udalari 20.549.250,00 euroren abalak eskatzea, ondoren dagozkion maileguak formalizatzeko. Abalak, xehakatuta, hauetarako lirateke:

- » 50 alokairuko BOE IB.13 Illarran, 5.350.000,00 €-an.
- » 37 alokairuko BOE Jolastokietan, 2.599.250,00 €-an.
- » 70 bizitoki Eraikiutza Institutoan, 5.250.000,00 €-an.
- » 70 bizitoki Morlansen (I. Fasea), 5.250.000 €
- » Irisgarritasuna eta energia eraginkortasunaren sustapena komunitatetan, 2.100.000,00 €-an.

Pertsona nagusientzat Intxaurrondon egingo diren 55 bizitokiak finantzatzeko maileguak, 2.167.652,15 eurotakoak, badu jada Udalaren abala eta sinatzear dago; bestalde, eraikuntzan handiak eta irisgarritasun hobekuntzak egiteko udaleko babes ofizialeko etxebizitzetan, alokairuan daudenetan; baita logela eskubideak desagertzeko eta proiektuak idazteko mailegua, 2.416.506,77 eurotakoak, 2019an sinatu zen.

2020-2023 laurtekoan Eusko Jaurlaritzatik jasoko diren diru laguntzen zenbateko osoa 11.258.000,00 euro dira. Bestalde, Donostiako Udaletxetik 54.591,80 euroko dirulaguntza bat jasoko da, Intxaurrondoko pertsona nagusientzako eraikuntzan Gizarte Ongizateak erabiliko duen lokala prestatzeko gastuak konpentsatzeko.

Bestealdetik, lehenasunez eskuratzeko eskubidea aritzeak bera bakerrik finantzatzen da, 4.000.000,00 €-an.

3.3. 2020ko jarduera arruntei dagozkien diru sarrera eta gastuak.

Erakundearen inbertsio jarduera guztia babes ofizialeko etxebizitza eraikinak sustatzera bideratuta dago, ondoren babespeko alokairuan jartzeko.

2020ko ekitaldian Erakundeak honako higiezinak kudeatuko ditu alokairuan: 1.499 BOE behin bukatuta Txomin Eneako promozioa, gazteentzako 283 bizitoki, nagusientzako 111

apartamentu behin bukatuta Intxaurrendoko promozioa eta 338 garaje. Kudeatuko dira ere nagusientzako 185 apartamentuak, logela eskubidearen erregimenean lagatzen direnak. Hauek alokairuan ematen hasiko dira logela eskubideak bukatzen diren ehinean.

Bukatzeko, Erakundearen Alokabide programaren bitartez kudeatzen diren 320 etxebizitzak ere sartzen dira higiezinaren parke horretan.

Bestalde, 2011ko apirilaren 29an Udalbatza Osoak egindako ohiko bilkuran erabaki zen Erakundeak hartzea bere gain ordura arte PARVISAREN esku egondako hiriaren birgaitzerako eta eraberritzaerako jarduerak. Bilera horretan, halaber, erabaki zen PARVISA erakundea desegitea eta Erakundeak haren eskubide eta betebeharrak guztiak hartzea.

Horregatik, Erakundeak, Donostian birgaitze integraturako gunetzat eta gune degradatutzat deklaraturik dauden aldeetarako Eusko Jaurlaritzak ematen dituen laguntzak izapidetzeaz aparte, Donostiako udal mugarte osoko egoitza eraikinak eta etxebizitzak birgaitzeko Udalak dagokion Ordenantzaren bitartez emango dituen diru laguntzak ematea kudeatzeaz ere arduratzen da. 2020an emango diren diru laguntzen gehienezko zenbatekoak Donostiako Udalaren aurrekontuko dagokion kontu sailean agertuko dira.

Halaber, Udalbatza Osoak 2015eko uztailaren 30ean hartutako erabakiz, onartu zen Donostiako Hirigintza Kudeatzeko Udal Lantegia ordura arte garatzen ari zen jarduerak kudeatzeko modua aldatzea, handik aurrera jardura horien ardura Erakundearen esku pasatuta.

Kudeaketa horrek guztiak, bai eta sustapen lanak ere, gastuak eta diru sarrerak eragiten dituzte, eta horiek Erakundearen galerak eta irabazien aurreikuspen kontua osatzen dute.

3.3.1. Negozio zifraren zenbateko garbia

Higiezinaren alokairua da Erakundearen jardura nagusia, eta jardura hori da, baita ere, behin eta berriz merkatuko diru sarrerak eragiten dituena.

Alokairuen prezioak, batez beste, hauek dira: 318 euro BOEetarako, 255 euro apartamentuetarako, eta 56 euro (BEZa sartu gabe) garajeetarako.

Errenta sozialez gain, kontuan hartu dira, baita ere, errentariak txandaka aldatzen direla eta horrek behartzen duela higiezinak hutsi izatera denbora tarte luzean edo motzean, berriro etxea bete arte, horrek, aldi berean, denbora tarte horietan errentarik ez kobratzea ekarrita, nahiz eta gutxieneko kontsumoak ordaindu behar diren. Txandakatze horiek, kalkuluen arabera, %4 izaten dira batez beste BOEetan eta %6 zuzkidurako bizitokietarako.

2020an, alokairu errentak handituko dira, Txomin Enean eta Intxaurrondon egin berri diren promozioak alokairuan jartzen hasiko baitira.

Horrek denak egiten du 2020rako aurreikusten diren errentamenduen diru sarrerak 6.641.196,00 eurokoak izatea.

Atal honetan, halaber, IBI zergaren bidez berreskuratzea espero diren zenbatekoak jasotzen dira, bai eta errentariei edo errentarien komunitateei egokitu arren Erakundeak ordaintzen dituen beste gastuak ere. 2020an 1.922.167,00 euro jasotzea espero da.

3.3.2. Pertsonen gastuak

Donostiako Hirigintza Kudeatzeko Udal Lantegia xurgatu ostean, Erakundeak plantillan izango dituen lanpostuak 22tik 27ra pasatuko dira. Horietako bi hutsa daude eta aurrekuntuan sartu gabe .

2019 urtean plantilla handitu zen 6 lanpostu berri sortuko baitira.

Ordainsariak kalkulatzeko 2019ko soldaten taula hartu da kontuan eta ordainsarietan %2,00ko igoera izan da.

Kontuan hartuta aurrekoa, 2020rako aurreikusten diren ordainsari gordinek 1.415.098,67 euro egiten dituzte, eta karga sozialen kontu sailak guztira 481.267,43 euro egiten ditu, barruan honako kontzeptu hauek daudela:

- » Enpresaren konturako gizarte aseguratza: 399.815,02 €
- » Elkarkidetzak: 18.202,41 €
- » Gizarte ekintza: 18.000,00 €
- » Bizitza eta istripuetarako aseguru kolektiboa: 3.250,00 €
- » Prestakuntza gastuak: 30.000,00 €
- » Lan arriskuen prebentzioa: 5.500,00 €

- » Osasunaren zaintza: 2.500,00 €
- » Abokatuaren Elkarte profesionala: 750,00 €
- » Mediku berrikuspenak: 3.000,00 €

Aurten aurreratutako jubilazioa hartzeagatik ordainduko den konpentsazioa jasotzen da ere bai, 55.414,91 eurotako.

3.3.3. Beste ustiapen gastu batzuk.

Babes ofizialeko etxebizitza parkeari eustea eta berankortasuna dira zerbitzu publiko hau ematean arreta berezia egitea eskatzen duten bi gai nagusiak.

Kanpoko zerbitzuen epigrafearen barruan aurreikusitako gasturik ezaugarrienak hauek dira:

- » Konponketak eta zaintze lanak: 1.364,650,00 €
- » Hornidurak: 820.200,00 €
- » Komunitateen gastuak: 538.000,00 €
- » Aseguru primak: 145.000,00 €
- » Sozial egoitzaren alokairua: 170.000,00 €
- » Ikasketa eta proiektuak: 100.000,00 €
- » Etxebizitza bulegoa: 50.000,00 €
- » AGREE proiektua: 100.000,00 €

Zergen kontu sailaren barruan, ondasun higiezinaren gaineko zerga da nabarmenena, 397.900,00 euroko zenbatekoarekin. Gainerakoan hainbat tasa sartzen dira.

Eragiketa komertzialengatik horniduretan urtebete baino gehiagoko berankortasun saldoak sartzen dira, hau da, 2020ko urtarrilaren 1a baino lehenago igorri eta oraindik kobratu ez diren ordainagiriak. 2019rako aurreikusten da ordainagiriaren %8 geratuko dela ordaindu gabe.

3.3.4. Higiezinaren amortizazioa.

Erakundearen ia ibilgetu osoa higiezinaren inbertsioak dira, eta horiek irizpide lineal bati jarraituta amortizatu behar dira bere bizitza baliagarri osoan zehar.

Kontuan izanik 2020an alokatzeko moduan egongo diren ia promozio guztiak eta PARVISAk utzitako ibilgetu osoa, amortizazioetarako zuzkidurek 3.310.983,11 euro egiten dituzte guztira.

3.3.5. Ibilgetu ez finantzarioaren diru laguntzen eta beste batzuen egozpena.

Erakundeak diru laguntzak jasotzen ditu Eusko Jaurlaritzatik, itzuli beharrik gabe, denbora tarte jakin batean babespeko alokairuan jarri behar diren babes ofizialeko etxebizitzaren sustapenerako. Diru laguntza horiek galera eta irabazien kontuari egotziko zaizkio, alokairuan jarritako higiezineterako kalkulaturako bizitza baliagarriaren denboraren arabera, hau da, 50 urtean. Hala, 1.021,034,01 euro dira 2020rako aurreikuspen kontuan diru sarrera moduan egotzi beharrekoa zenbatekoa.

Bestalde, urtero jasotzen da Udalak desegin den PARVISA erakundeari ibilgetua erosteko emandako 72.236,43 euroren diru laguntza.

3.3.6. Besterentzeen eta beste eragiketa batzuen ondoriozko emaitza.

Atal honetan jasotzen dira aurreko ekitaldietan lursail, salgai zeuden babes ofizialeko etxebizitza eta lokalen azalera eskubideen lagapenagatik kobratutako kanonak, 149.060,75 euroren baliokoak, aurreikuspen kontuari diru sarrera moduan egozteko lagapenak irauten duten urte kopuruaren arabera.

3.3.7. Diru sarrera finantzarioak.

Eusko Jaurlaritzak diruz laguntzen dituen interesen zatia jasotzen du. Alokairuko etxeen sustapena finantzatzeko diren mailegu kualifikatuei dagozkien interesak dira horiek. 2020ko aurrekonturako aurreikusita dago diruz laguntzen diren interes horien zenbatekoa 325.175,21 euro izango direla.

3.3.8. Gastu finantzarioak.

Kreditu erakundeekin izaten diren epe luzerako zorrek sortarazten dituzten interesak jasotzen dira. 1.050.352,17 euro egotzi zaie interes horiei.

Bestalde, Logela eskubidea dutenekiko zorrek interesak sortarazten dituzte inflazioa dela eta. Interes horiek 111.709,65 eurotakoak izango direla balioztatzen da.

3.4. Donostiako Udalaren diru laguntzak.

Azaroaren 21eko 1463/2007 Errege Dekretuak, Aurrekontu Egonkortasunari buruzko Legearen Erregelamendua onartzen duenak, bere 4.2 artikuluan jasotzen du batez ere merkatuaren araberako diru sarrerekin finantzatzen diren enpresa erakunde publikoek oreka finantzarioaren egoeran onartu beharko dituztela beren aurrekontuak.

Proposamen gisa onartzeko aurkezten den 2020ko Galera eta Irabazien Aurreikuspen Kontuaren arabera, ustiapen gastuekin alderatuta (pertsonek gastuak, ustiapeneko beste gastu batzuk, eta higiezinaren amortizazio gastuak) errentamenduen diru sarrerei dagokien portzentajea %89 da.

Kontuan izanik Donostiako Etxegintza batez ere merkatuaren araberako diru sarrerekin finantzatzen dela, bere Galera eta Irabazien Aurreikuspen Kontua oreka finantzarioan egon dadin beharrezkoa du Donostiako Udalaren diru laguntza bat jasotzea, 774.058 euroko diru laguntza, zehazki. Diru laguntza horrekin batez ere Udalak dituen babes ofizialeko etxebizitzetan aplikatzen den errenta sozialen politika finantzatzeko litzateke.

Bestalde, Donostiako Udalak dirulaguntza bat izendatu ditu bere aurrekontuetan Entitateari dagozkiona:

- » Kapital diru laguntza Gizarte Ongizatearentzako ekipamenturako lokalaren birgaikuntzarako, 545.592 eurotako.
- » Diru laguntza maileguen amortizazioa ordaintzeko, 2.684.330,35 eurotako.
- » 1.000 euro, belaunaldien arteko cohousing-ekintzak egiteko FEDER funtsei lotutako ekimenen sorkuntza aztertzeke zuzkidura gisa.

11. taula: Donostiako Etxegintza Enpresa Erakunde Publikoaren programa osagaiak

Programa osagaiak	Zenbatekoa	%
Donostiako Etxegintza Enpresa Erakunde Publikoa	20.609.662,00	100,00
Guztira	20.609.662,00	100,00

12. taula: Donostiako Etxegintza Enpresa Erakunde Publikoaren diru-sarreraren ekonomi balioztapena

Kapitulua	Deskribapena	Zenbatekoa	%
1	Zuzeneko zergak	0,00	0,00
2	Zeharkako zergak	0,00	0,00
3	Tasak eta bestelako zergak	1.922.168,00	9,33
4	Transferentzia arruntak	1.199.233,00	5,82
5	Ondare-sarrerak	6.026.930,00	29,24
6	Inbertsio errealen besterenganaketa	1.000.000,00	4,85
7	Kapital-transferentziak	4.747.922,00	23,04
8	Finantza-aktiboak	0,00	0,00
9	Finantza-pasiboak	5.713.409,00	27,72
Guztira		20.609.662,00	100,00

13. taula: Donostiako Etxegintza Enpresa Erakunde Publikoaren gastuen ekonomi balioztapena

Kapitulua	Deskribapena	Zenbatekoa	%
1	Pertsonal-gastuak	1.896.367,00	9,20
2	Gastuak ondasun arruntetan eta zerbitzuetan	4.021.250,00	19,51
3	Finantza-gastuak	1.050.352,00	5,10
4	Transferentzia arruntak	0,00	0,00
6	Inbertsio errealak	8.777.001,00	42,59
7	Kapital-transferentziak	0,00	0,00
8	Finantza-aktiboak	0,00	0,00
9	Finantza-pasiboak	4.864.692,00	23,60
Guztira		20.609.662,00	100,00

14. taula: Donostiako Etxegintza Enpresa Erakunde Publikoaren. Orokorra. Diru-sarrerren azalpena

Diru-sarrerren azalpena	Zenbatekoa
3. kapitulua	
Hainbat diru-sarrera	1.922.168,00
3. kapituluaren guztizkoa	1.922.168,00
4. kapitulua	
Maileguen korrituei, Eusko Jaurlaritzak emandako diru-laguntza	325.175,00
AGREE proiekturako diru-laguntza	100.000,00
Donostiako Udalak emandako diru-ekarpena (gastu arrunta / bulegoaren alokairua)	170.000,00
Donostiako Udalak emandako diru-ekarpena (gastu arrunta)	604.058,00
4. kapituluaren guztizkoa	1.199.233,00
5. kapitulua	
Etxebizitza eta aparkalekuen alokairua	6.026.930,00
5. kapituluaren guztizkoa	6.026.930,00
6. kapitulua	
Lehentasunezko udal eskuratzearen eskubidearen salmenta	1.000.000,00
6. kapituluaren guztizkoa	1.000.000,00
7. kapitulua	
Adinekoentzako 55 apartamentu Intxaurren. Alokairu babestuari Eusko Jaurlaritzak emandako diru-laguntzak	1.758.000,00
EJ dirulaguntza Illarra (asistentzia teknikoak)	100.000,00
EJ dirulaguntza Eraikuntzaren institutua (asistentzia teknikoak)	75.000,00
EJ dirulaguntza Morlans Fase I (asistentzia teknikoak)	75.000,00
Donostiako Udalak emandako diru-ekarpena (kapital gastua)	2.739.922,00
7. kapituluaren guztizkoa	4.747.922,00
9. kapitulua	
Adinekoentzako 55 apartamentu errendamenduan Intxaurren. Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntza duen mailegua	2.167.652,00
Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntza duen mailegua. Komunitateetan irisgarritasun eta efizientzia energetikoa	1.050.000,00
37 babes ofizialeko etxebizitza alokatzeko. Jolastokieta. Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntza duen mailegua	79.250,00
Jasotako epe luzerako maileguak (merkatua)	2.416.507,00
9. kapituluaren guztizkoa	5.713.409,00
Guztira	20.609.662,00

15. taula: Donostiako Etxegintza Enpresa Erakunde Publikoaren. Orokorra. Gastuen azalpena

Gastuen azalpena	Zenbatekoa
1. kapitulua	
Langileen ordainsariak	1.415.099,00
Gizarte-kargak	481.268,00
1. kapituluaren guztizkoa	1.896.367,00
2. kapitulua	
Eraikinen errentamendua	170.000,00
Eraikinen konponketa, mantentzea eta artapena	1.364.650,00
Hornidurak	820.200,00
Aseguru-primak	145.000,00
Tributuak	397.900,00
Ikerketa eta proiektuak	140.000,00
Komunitate gastuak	538.000,00
Beste zerbitzuak	445.500,00
2. kapituluaren guztizkoa	4.021.250,00
3. kapitulua	
Epe luzeko zorren interesak	1.050.352,00
3. kapituluaren guztizkoa	1.050.352,00
6. kapitulua	
55 apartamendu Intxaurren alocatzeko	3.980.244,00
50 apartamendu Illarran alocatzeko	100.000,00
37 babes ofizialeko etxebizitza alocatzeko. Jolastokieta	79.250,00
Eraikuntzarako institutoa (zuzkiduretako 70 bizileku)	75.000,00
Morlans 1.fasea (zuzkiduretako 70 bizileku)	75.000,00
Lehentasunezko udal eskuratzearen eskubidearen gauzatzea	1.000.000,00
Konponketa handiak alokatutako udal etxebizitzetan	1.000.000,00
Komunitateetan irisgarritasun eta efizientzia energetikoa	1.050.000,00
Irisgarritasuna hobetzeko neurriak alokatutako udal etxebizitzetan	450.000,00
Gela eskubideen iraungipena	918.559,00
Amara kaleko eta zuzkiduretako bizilekuen proiektua idaztea	47.948,00
Ikerketak	1.000,00
6. kapituluaren guztizkoa	8.777.001,00
9. kapitulua	
Maileguen amortizazioa	4.864.692,00
9. kapituluaren guztizkoa	4.864.692,00
Guztira	20.609.662,00

4. Polloe, Donostiako Hileta Zerbitzuak S.A.

2019. urtean, ekonomikoki azken urteotako emaitza positiboak mantentzea espero dugu (290 mila euroko emaitza).

Errausketekin alderatuz, lurperaketen berdintzea ikusi daiteke, azken hauek zertxobait goitik egonik (2019rako 575 gorpuen lurperaketa espero dira, 520 errausketa eta 220 errautsen lurperaketa).

Gainontzean, neurrizko aurrekontua egin dugu, ikuspegiak errealistak dira eta, zerbitzuaren kalitatea mantentzeko asmoz, beharrezkotzat jotzen diren gutxieneko hobekuntzak gauzatuko dira hilerrietan. Beste urteetan bezala, sozietateak, hala ere, ez du galerarik izango gastu hauen ondorioz.

12. urtez, prezioak ez dira aldatzen.

2020an 400.000 euroko dibidendoa banatzea espero da.

Onbideratutako egitura ikus daiteke balantzean: laneko kapital positiboa eta emaitza positiboak ere, bai 2019an eta 2020an.

Zaintza-lanei dagokienez, gure kasa moldatzen saiatzen gara ahalik eta gehien.

4.1. Diru-Sarrerak

Errausketak eta lurperaketak gutxi gorabehera diru-sarreraren %45 dira. Urtero hilobien titularrek ordaintzen duten hilerrien mantenu asa %30 inguru eta hilobien garbiketa zerbitzuak, marmoldegi lanak, hilobien alokairuak eta bestelako zerbitzuak beste %25a.

4.2. Gastuak

Pertsonalari dagokionez, % 2ko igoera ezarri da 2020rako. Administrari baten baja dela eta, bitartekotasun kontratu bat sinatuta dugu eta ez dakigu zer gertatuko den jadanik 2 urte lan egin gabe egonik. Honekin batera, 2 lurperatzaile bajaran dugu eta bakarrik bitartekotasun kontratu bat sinatuta dugu. Bestalde, Donostiako Sustapenak eskaintzen dizkigun kontratazio aukerei adi gaude

Polloeko eta Altzan hormigoitzea eta asfaltatzea aurreikusi da. Mantenu lanak izango lirateke. Honetarako 40 mila euro aurreikusi dira.

Hilerriko harresien garbiketa eta mantenua ere aurreikusi da eta egoera txarrean diren zenbait zuhaitzen moztea. Guztira 25 mila euro aurreikusi dira.

Lege aholkularitzan, errautsen lorategiren pleguak prestatzeko eta bestelakoak lantzeko, 25 mila euro aurreikusi dira.

Konpontze lanetan ere 31 mila euro aurreikusi dira, bertan hilerrietan egiten diren zenbait ohiko lan sartzen dira eta, 2020, ateen itxiera sistema aldatzea gustatuko litzaiguke, Udaltzaingoak beraien bulegotik ireki edo itxi ahal izateko.

4.3. Inbertsioak

Errautsen lorategiari dagokionez, 2018an Plan Berezia onartu eta gero, aurrekontu mugatu batean eta Udalarekin batera zenbait proiektuen aztertzea aurreikusita dago. Gutxi gorabehera 800 mila euroko inbertsioa espero da.

Errausketa-labearen inbertsioa eginik, erraustegiaren arreta bulegoan erreforma egitea beharrezkotzat jotzen dugu. Oraindik ez dugu aurrekontu zehatza baina 50 mila euro aurreikusi dira.

16. taula: Polloe, Donostiako Hileta Zerbitzuak S.A.ren programa osagaiak

Programa osagaiak	Zenbatekoa	%
Polloe, Donostiako Hileta Zerbitzuak S.A.	2.059.141,00	100,00
Guztira	2.059.141,00	100,00

17. taula: Polloe, Donostiako Hileta Zerbitzuak S.A.ren diru-sarreraren ekonomi balioztapena

Kapitulua	Deskribapena	Zenbatekoa	%
1	Zuzeneko zergak	0,00	0,00
2	Zeharkako zergak	0,00	0,00
3	Tasak eta bestelako zergak	1.449.278,00	97,48
4	Transferentzia arruntak	37.500,00	2,52
5	Ondare-sarrerak	0,00	0,00
6	Inbertsio errealen besterenganaketa	0,00	0,00
7	Kapital-transferentziak	0,00	0,00
8	Finantza-aktiboak	0,00	0,00
9	Finantza-pasiboak	0,00	0,00
Guztira		1.486.778,00	100,00

18. taula: Polloe, Donostiako Hileta Zerbitzuak S.A.ren gastuen ekonomi balioztapena

Kapitulua	Deskribapena	Zenbatekoa	%
1	Pertsonal-gastuak	628.853,00	30,54
2	Gastuak ondasun arruntetan eta zerbitzuetan	580.288,00	28,18
3	Finantza-gastuak	0,00	0,00
4	Transferentzia arruntak	0,00	0,00
6	Inbertsio errealak	850.000,00	41,28
7	Kapital-transferentziak	0,00	0,00
8	Finantza-aktiboak	0,00	0,00
9	Finantza-pasiboak	0,00	0,00
Guztira		2.059.141,00	100,00

19. taula: Polloe, Donostiako Hileta Zerbitzuak S.A. Orokorra. Diru-sarreraren azalpena

Diru-sarreraren azalpena	Zenbatekoa
3. kapitulua	
Jarduerak burutzeagatiko prezio publikoak	1.438.511,00
Salmentak	10.767,00
3. kapituluaren guztizkoa	1.449.278,00
4. kapitulua	
Dirulaguntzak	37.500,00
4. kapituluaren guztizkoa	37.500,00
8. kapitulua	
Defizit edo superabitaren ondorioz aurrekontua orekatzeko eragiketak	0,00
5. kapituluaren guztizkoa	0,00
Guztira	1.486.778,00

20. taula: Polloe, Donostiako Hileta Zerbitzuak S.A. Orokorra. Gastuen azalpena

Gastuen azalpena	Zenbatekoa
1. kapitulua	
Langileriaren gastuak	462.994,00
Gizarte-kargak	165.859,00
1. kapituluaren guztizkoa	628.853,00
2. kapitulua	
Hornidurak	5.500,00
Errentamenduak	13.256,00
Konponketak eta artapena	416.082,00
Kanpoko zerbitzuak	12.000,00
Hornidurak: ura, argi-indarra eta gasa	39.700,00
Aseguru primak	12.000,00
Publizitatea eta propaganda	1.800,00
Tributuak	800,00
Beste hainbat gastu	44.350,00
Zerbitzu profesional independenteak	34.800,00
2. kapituluaren guztizkoa	580.288,00
6. kapitulua	
Inversiones reales	850.000,00
6. kapituluaren guztizkoa	850.000,00
Guztira	2.059.141,00

5. Donostia Kultura Enpresa Erakunde Publikoa

5.1. Sarrera

Donostia Kultura Enpresa Erakunde Publikoaren helburua da Udalak kultura eta jaien arloan dituen eskumenak aurrera eramatea, modu zuzen eta deszentralizatuan. Hortaz, erakundeari dagokio Donostiako Udalaren eskumenekoa den kultura arloaren plangintza, eratzea eta kudeaketa, bai eta jai jardueren sustapena eta antolakuntza ere (Donostia Kulturaren Estatutuak).

5.2. 2020. DK-k 30 urte

Donostiako Udal Kultur Erakundea sortu zela 30 urte izango dira 2020an. Ordura arte Udal erakunde ezberdinetan sakabanatuta zeudenak elkartu eta kultur patronatua osatu zuten; gaur egun ezagutzen dugun Donostia Kulturaren muina.

Urteurren honetan herritarrak eta sortzaileak jarri ditugu gure helburu nagusien artean. Herritarren babes handia lortu du urte hauetan Donostia Kulturak baina lotura hori areagotu egin nahi dugu; eskaintzak gaurkotu eta berritzeaz gain herritarrek eskatzen dutena, estimatzen dutena, eta kritikatzin dutena entzun eta kontuan hartzea da urteurrenerako daukagun helburu nagusietako bat. Horretarako irakurketa zaletasuna bultzatzen segitzeko eta irakurmena sustatzeko LIBURUKA proiektuarekin segiko dugu bigarren urtez, piskanaka kultur etxeetako liburutegiak bereizten segiko dugu (Surfa Okendon, Kirola Ernest Lluchén, Komikia Intxaurren...) eta gure ikastaroen eskaintza ere berritzeko asmoa dugu orain artekoa ebaluatu eta apustu berriak eginez.

Sortzaileengan indar gehiago jarriko dugu bestalde. Disziplina guztietan bertako sortzaileei aukerak eskaintzen saiatuko gara. Museo Bikoitzari adibidez San Telmon beste programa bat erantsiko zaio: ikusizko arteetan promesa diren bertako artisten erakusketak Laborategian. Liburutegi sailean Donostiako Mapa Literarioa burutuko da bertakoak eta estimatuak diren idazleen ondareak eta memoriaak bizirik segi dezan. Larrotxeneko bideo eskola eta Beldurrezko Astearen artean "Oihua" izeneko proiektua sortu da: beldurrezko

laburmetraien lehiaketa; irabazleak pieza egiteko laguntza, bitartekoak eta tutoretza izango ditu.

